

Idazlar. Itza

kopier: nekateza

TOLOSAKO UDALA

2018 ABE. 1 0

SARRERA - ERREGISTROA
ZKA. 9506

AUZITEGI GORENAREN ADIERAZPENA

Demokraziak botere judizialaren erabateko independentzia defendatu behar du, estatuko botereekiko independentzia eta, nola ez, botere ekonomikoekiko, mediatikoekiko eta edozein presio-indarrekiko independentzia, hain zuzen ere herritarren zerbitzura dagoen justizia bermatu dadin.

Helburu horren emaitza izaera askotako hainbat faktoreren menpe dago, bai eta askotariko prebentzio- eta aurreikuspen-neurriak hartzearen menpe ere: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko (BJKN) kideak izendatzeko sisteman, BJKNren funtzionamenduan, diziplina-sistemaren funtzionamenduan, postu judizialekara sartzeko eta mailaz igotzeko sisteman, goi kargu judizialak izendatzeko mekanismoetan (Probintzia Auzitegiak, Justizia Auzitegi Nagusietako eta Audentzia Nazionaleko buruak, eta Aretoko presidentek eta Auzitegi Gorenko magistratuak), prozesu horien guztien gardentasunean, etab.

Hala ere, Espainiako Konstituziotik eratorritako prozesu demokratikoak urte askotan zehar kudeatu dituen alderdi biko sistemak bazterrean utzi du Konstituzio Auzitegiak bere garaian adierazi zuen oharra, hain zuzen ere Kontseiluko kideen izendapenarekin lotuta honako hau adierazi zuenean: "Egia esan, Konstituzio Arauaren helburua urratzeko arriskua dago Ganberek, euren proposamenak egiten dituztenean, helburu nagusia ahazten badute eta, honako hau ez den beste esparru batzuetan onargarriak diren irizpideei jarraituta, euren baitan dauden indarren bereizketari bakarrik erantzuten badiote eta bete beharreko postuak alderdien artean banatzen badituzte, legebiltzarrean duten indarraren araberako proportzioan. Alderdien estatuaren logikak izaera horretako jardunak sortzen ditu, baina logika horrek berak behartu egiten gaitu alderdien arteko borroka botere-esparru jakin batzuetatik kanpo uztera, baita, modu berezian, Botere Judizialek kanpo ere."

Bere garaian iragarritako aurreikuspenik okerrenak egia bihurtu dira. Azken 5 urteetan, BJKNko eta Auzitegi Gorenko (AG) presidentea Carlos Lesmes izan den garaian, arbitrariotasun, nepotismo eta Alderdi Popularrarekiko menpekotasun egoera onartezin batera eraman dira BJKN eta AG.

Batez ere, BJKNko goi magistraturetan egin diren izendapenak azpimarratu behar dira, bereziki Auzitegi Gorenko Bigarren eta Hirugarren Aretotan urte honetan bertan. Izan ere, adiskidetasun ideologikoak merezimenduek eta ahalmenek baino garrantzi handiagoa izan du. Adibidez, Díez Picazoren kasuan, Lesmesen eta Gallardonon laguna izateagatik hautatu zuten; horrek sekulako ekaitza sortu zuen Botere Judizialean. Horren guztiaren ondorioz, hain justu, Auzitegi Gorenak

indargabetu egin ditu Espainiako bankuei eragiten zieten jardun juridiko dokumentatuen ordainketarekin lotutako epaiak, horretarako benetan zalantzan jartzekoak diren mekanismoak erabiliz Aretoko presidentek, hasiera beretik polemikarekin lotua egon denak eta bankuaren unibertsitateko irakasle oiak, bigarren sekzioko irizpidearen zuzenketa helarazi du osoko bilerara.

Horregatik guztiagatik, erantzukizunak hartzea eskatzen dugu, eta zehazki udalari:

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eskatzen diogu Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko eta Auzitegi Goreneko presidente Carlos Lesmes Serrano jauna lehenbailehen kargutik kentzeko, bai eta Hirugarren Aretoko presidente Díez Picazo jauna ere, hipotekak sinatzearen ondoriozko jardun juridiko dokumentatuen gaineko zerga ordaintzearekin lotutako errekurtsioak ebazteko gaitasunik eza nabarmena adierazi baitute.

Egoera hau (hipoteken gaineko zerga hau ordaindu behar izatea, alegia) jasan duten eta jasaten ari direnekiko elkartasuna adieraztea aho betez, Tolosako udala, herritarren ordezkari den heinean, herri baten solidaritatea erakusteko eta herritarren eskubideen urraketen aurkako jarrera aktiboa aurkezteko.

Azkenik, Gorte Nagusiei eskatzen diegu BJKNko kideak izendatzean STC 108/1986 epaiak ezarritako konstituzio-araubideekin bat etortzea, hain zuzen ere "Kontseiluaren osaerak gizartean dagoen aniztasunaren isla bete dezan eta, bereziki, Botere Judizialak berak hori berma dezan". Azken batean, gobernuaren eta botere judizialaren arteko independentzia bermatzea nahi dugu, alderdi politikoek legebiltzarrean lortzen dituzten izendapenak alde batera utzita. Honekin gure herriaren historian zehar eman diren epai politizatuak berriro errepika ez daitezten.

Inigo Cabieces Casares

Ahal Dugu Tolosako bozeramailea



Idatzleri Nagusia